

Oporetako arazoa

Ustailak 15 astelenehan segoen Ema, Sindia eta Luka oporetan etxe batean. Etxea mendian zegoen, herritik pixka bat urrun, eta oso leku lasaia zen egoteko.

Goizetan txorien kantua entzuten zen eta gauetan oso isiltasuna egoten zen.

Lehenengo egunetan oso ondo pasatu zuten: paseoak eman, argazkiak atera eta pelikula batzuk ikusi zituzten. Giroa oso ona zen hiruren artean.

Ema eta Sindia logelan zeuden mobila ikusten eta hizketan. Batzuetan bideoak ikusten zituzten eta beste batzuetan sare sozialetan egoten ziren. Denbora azkar pasatzen ari zen, eta ez ziren konturatu zenbat denbora zeramatan horrela. Kanpoan eguraldi ona egiten zuen, baina haiek barruan geratu ziren, pixka bat aspertuta egonda.

Denbora bat pasatu ondoren, Luka jaiki zen eta logelara joan zen. Atean gelditu eta esan zuen:

—Zer nahi dozue jateko?

—Noa afaria egitea —esan zuen Lukak.

Ema eta Sindiak berehala erantzun zuten, ia pentsatu gabe:

—Nik entsalada bat nahi dut oilaskoarekin —esan zuen Emak.

—Nik ere bai —esan zuen Sindiak, mugikorretik begiratu gabe.

Luka sukaldara joan zen. Hasieran lasai zegoen eta musika entzuten jarri zen afaria prestatzen zuen bitartean. Ontzi bat eta labana artu zuen tomatea, kipula, letxuga eta beste barazki batzuk prestatzeko.

Baina hozkailua ireki zuenean, konturatu zen ia ez zegoela ezer barruan, eta gainera zeuden gauzak ere zaharrak ziruditen.

Momentu horretan, haserretu egin zen eta oihuka hasi zen:

—Zergatik ez dago janaria hozkailuan!

Logelan, Ema eta Sindia lasai jarraitzen zuten. Ema arropa jartzen ari zen ispilu aurrean eta Sindia begira zegoen, komentarioak egiten eta barrez. Handik pixka batera, oihu handi bat entzun zuten

.

—Zer izan da hori? —galdetu zuen Emak.

—Ez dakit, baina uste dut Luka izan dela —esan zuen Sindiak— beti azkar aserretzen da.

Hasieran ez zioten garrantzi handirik eman, baina minutu batzuk pasa ondoren, berriro zarata batzuk entzun zituzten eta orduan kezkatu ziren pixka bat. Azkenean, sukaldara joatea erabaki zuten zer gertatzen zen ikusteko.

Sukaldara sartu zirenean, ikusi zuten Luka oso asarre zegoela, hozkailuaren aurrean, atea irekita eta barrura begira.

—Zergatik ez didazue esan ez dagoela janaririk? —esan zuen
— Orain, berehala joango gara supermerkatua, eta zuek egingo dozue afaria!

Ema eta Sindia aurpegi nekatuarekin geratu ziren. Ez zuten gogorik ateratzeko, baina bazekiten arrazoia zuela.

—Ados, goazen hirurok batera —esan zuten azkenean.
Azkar batean prestatu ziren, zapatak jantzi eta kalera irten ziren. Kotxera igo ziren eta bidea hasi zuten. Supermerkatua 25 minutura zegoen, eta hasieran isilik joan ziren, pixka bat pentsatzen seuden bakoitzak.
Denbora batean, zarata arraro bat entzun zen:
—Pux!
—Zer izan da hori? —esan zuen Sindiak pixka bat urduri.
—Gurpila zulatu dela uste dut —esan zuen Emak.

Lukak kotxea gelditu zuen eta hirurok jaitsi ziren. Inguruan ez zegoen inor eta pixka bat iluntzen hasia zen. Maleteroa ireki zuten eta begiratzen hasi ziren.

—Bai, gurpila zulatuta dago —esan zuen Lukak serio.
Ema pixka bat urduri jarri zen:
—Eta orain zer egingo dugu? Hemen geratuko gara ala?
Sindiak pentsatu eta esan zuen:
—Lasai, agian ordezeko gurpila badago, begiratu dezakegu.
Hirurok maleteroa begiratu eta azkenean gurpila aurkitu zuten. Luka aldatzen hasi zen eta Ema eta Sindia laguntzen saiatu ziren. Denbora pixka bat pasa ondoren, lortu zuten.
—Uf, azkenean —esan zuen Lukak— orain bai, goazen supermerkatua.
Supermerkatuan erosketak egitera goas

Han, denbora pixka bat eman zuten erosketak egiten. Oraingoan hirurok parte hartu zuten: Ema barazkiak aukeratzen, Sindia edariak hartzen eta Luka beste gauzak bilatzen. Ondo antolatu ziren eta dena azkar egin zuten.

Ettxera bueltatu zirenean, afaria prestatzen hasi ziren. Ema eta Sindia sukaldean aritu ziren, eta Lukak mahaia prestatu zuen. Giroa askoz hobea zen orain, eta barre egiten hasi ziren.
—Hurrengoan hobeto antolatuko gara —esan zuen Emak.
—Eta ez gara denbora guztian mugikorrarekin egongo —esan zuen Sindiak.
Luka ere lasaitu zen eta barkamena eskatu zuen. Giroa hobetu zen eta denek elkarrekin afaria prestatzen jarraitu zuten.
Azkenean, mahaira eseri eta jan zuten. Oso goxoa zegoen.
Afaldu ondoren, mahaia jaso zuten eta ohera joan ziren, nekatuta.
Pentsatu zuten eguna nahiz eta gaizki hasi, ondo bukatu zela.

